


## Etxeko lanak


Zer goaitatzen dugu burasoengandik ?  
Eta bai, ez baita aski erraitea : « are,  
habil lanen egitera jostetak utzirik ! »



1 Burasoak, bere haurrak egitekoak dituen lanak bildu behar ditu (ikastolan hartuz, edo webgunean hartuz eta inprimatuz).



2 Burasoak bere haurrarekin adosten ditu lan mementuak, jakinez orotar 2 oren/2 oren eta erdiko lana aurreikusten dela egunero.  
Ad : izan daiteke 10 orenetarik 11 orenak arte, pausa bat eta berriz 11:30tarik 12:30 arte, edo beste... Garrantzitsua da mozturak izaita haurraren erritmoaren errespetatzeko. Behin adostu eta burasoari da horren berme izaita ! Ordularia agerian uzten da !



3 Burasoak lagun dezake haurra instalatzen, behar dituen puskak harrarazten, leku egoki baten antolatzen, ixiltasuna edo lasaitasuna, eta argia segurtatzen.



4 Ikasleak aste osoko lanak ukaiten ditu... burasoak lagun dezake lehenik orokorki begiratzen zer baden, sailkatzen, lagun dezake aurkezpen orriaren irakurtzen. Burasoak bere haurra laguntzen ahal du planifiatzen, egunean eguneko lana hautatzen. Ad : « hasten ahal haiz irakurketatik, eta ondotik trebatuko haiz eragiketen pausatzen... ».

Sailkagailu batean edo apaletan antolatzen ahal dituzue asteko lanak.

Garrantzitsua da haurra ez dadin lan zamaren aitzinean lotsa !



...

5 Haurra lan batean hasten den pundutik, burasoa urruntzen da, bakarrik uzteko... konfiantzan.

Haurrak deitzen badu, burasoak zer nolako laguntza behar duen entzuten du,  
\*antolaketa mailakoa balin bada lagundu dezake.

\*ulermen zailtasun, ezintasun, edo traba berezi bat balin badu haurrak, burasoak



ez du laguntzerik, haurrak paso egin dezake eta irakaslea, lana zuzentzerakoan ohartuko da edo irakaslearekin lotura egiten ahal da, meilez edo telefonoz. Eta anartean, haurrak beste lan bat har dezake.

Burasoak ez du irakasle izaiterik !

Lasai, ez presiorik eman zuen buruei !




6 Lana egina delarik, burasoak har dezake tarte bat egin denaren begiratzeko eta balorizatzeko : « bikain, zer lana ! »




7 Azkenik, burasoak lagun dezake biltzen, ordenatzen, biharamuneko dena prest izan dadin !

**Hara, hauek ziren gure gomendioak,  
lagungarri izanen zaizkizuelakoan,  
irakasleak.**




## Les devoirs


Qu'attendons-nous des parents ? Et oui, car il ne suffit pas de dire : « allez, arrête de jouer et va faire tes devoirs ! »



1 Le parent doit rassembler les devoirs à faire (en les récupérant à l'ikastola, ou en les déchargeant et en les imprimant du site web).



2 Le parent va décider avec son enfant des temps de travail, sachant qu'on prévoit un temps de travail quotidien de 2 heures/ 2 heures et demi. Ex : ça peut être de 10 heures à 11 heures, une pause, et reprise de 11:30 à 12:30, ou autre... Il est important de prévoir des pauses pour respecter le rythme de l'enfant .



Une fois décidé, le parent est garant du respect de l'engagement ! L'horloge est laissée apparente !

3 Le parent peut aider l'enfant à s'installer, à prendre ses affaires, à préparer un lieu adapté, à assurer un bon éclairage et le calme ou le silence.




4 L'enfant reçoit les travaux pour toute une semaine... le parent peut d'abord aider à regarder l'ensemble, à trier, à lire le document de présentation.

Le parent peut aider son enfant à planifier le travail, à choisir le travail jour après jour.

Ex.: « tu peux commencer par la lecture, et puis tu t'entraîneras à poser les opérations... ».

Vous pouvez organiser les devoirs de la semaine dans un classeur ou des casiers. C'est important pour que l'enfant ne se décourage pas devant la charge de travail !



...

5 Dès que l'enfant se met au travail, le parent s'éloigne, pour le laisser seul... en confiance. Si l'enfant appelle, le parent écoute le type d'aide demandé, \*si c'est de l'ordre de l'organisation, il peut aider.



\*si c'est une difficulté de compréhension, un problème particulier, le parent n'a pas à aider, l'enfant peut passer à autre chose, lors de la correction, l'enseignant verra et s'en chargera ou vous pouvez contacter l'enseignant par mail ou téléphone. Le parent n'a pas à être l'enseignant ! Tranquille, ne vous mettez pas la pression !



6 Une fois le travail fait, pensez à regarder ce qui a été fait et à valoriser le travail : « super, quel travail ! »



7 Enfin, le parent peut aider à ranger, à ordonner, pour que tout soit prêt le lendemain!

**Voilà, ce sont nos conseils, en espérant  
qu'ils vous soient utiles,  
les enseignants.**

